




BETERRIKO ALDIZKARIA



# AIURRI

1996ko azaroaren 29a. 47. zenbakia. Doain banatzen da.



ZABORRAK  
JANGO  
GAITU

**EUSKARAREN ERABILERARI  
ETA SOZIOLINGUISTIKARI  
BURUZKO  
MINTEGI-IKASTAROA**

- ✓ Euskara Historian zehar: bere galeraren arrazoiak
- ✓ Hizkuntza ezagutzetik hizkuntza erabiltzera: iraganbidea
- ✓ Hizkuntzaren erabilera finkatzeko faktoreak
- ✓ Euskararen erabileraren normalkuntza: definizioak, plangintzak, ikuspegiak, jokabideak...

**Iraupena:** 24 ordu.

**Noiz:** urtarrilaren 17-tik martxoaren 7-ra.

**Tokia:** zehazteke.


**Ordua:** arratsaldeko 17:00-etatik 20:00-etara.

**Matrikulatzeko epea:** abenduak 20

**Arduraduna:** J. Unanue

*Informazio gehiago 30 07 33 telefono zenbakira deituz.*

# EUSKARA BIHAR



**ANTOLATZAILE**



**KULTUR  
BAZKUNA**

**LAGUNTZAILE**



Gipuzkoako  
Foru Aldundiko  
Kultura eta  
Euskara  
Departamendua


— Euskararen muga gaur egun  
- - - Euskararen muga 1935ean  
— Euskararen muga duela mende bat

**Etxebizitzaren  
salerosketa**

**075A89**

Kaleberria, 58 ☎ 69 08 94 BILLABONA

**A.E.P.I. 286**



- Saloia
- Sukaldea
- Komuna
- 2 bainu
- Ateripea
- 3 eta 4 gela
- 75 m<sup>2</sup>ko garajea
- Sukaldea erdi hornitua
- Poliuretanozko leiho - atearak
- Kalitate handiko materialak

**ZIZURKILKO**  
parajerik  
ederrenetako  
batean  
(P. M. Otaño  
Ikastetxearen ondoan)

**ZATOZ konpromezurik gabe !!**

**ARANBURU**

*agentzia*

Aseguruak - Aholkularitza

**PROFESIONALAK GARA**

Kaleberria, 26 behea

☎ 59 08 14

**ANDOAIN**

**winterthur**

**AURRERA  
TABERNA**

Girorik ederrena gazteriarentzat!!

**ZIZURKIL**

1. **AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK**  
Joseba Erkizia. Badoaz kurriloak.
2. **GALDEZKA.**  
Eta zuk, ba al duzu birziklatzeko ohiturarik?
3. **LARRAUL**  
Erretaula jartzeko lanak hasi dituzte.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**  
Euskaldunen zentsua.  
Azaro eta abendu kulturala.  
31 lokomotorea euskal herrira.
7. **ASTEASU.**  
Eskulanak Lizardi etxean.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**  
Futbol-salako taldeak serio hartu du denboraldia.  
Trasmisio kanpaina.
10. **ZIZURKIL.**  
Zentroari buruzko auzia.
11. **BASERRIA.**  
San Martin eguna, baserritarren festa.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**  
Zaborrak jango gaitu.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**  
Rosa Aguilar: "Estatuaren antolakuntza berria behar dugu.
- 16-17. **KIROLA.**  
Andoain eta Billabonako mendi asteak.  
Leitzarar boleibol taldea.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32  
Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.  
**Zuzendaria:** Ainhoa Oartzabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia. **Erredakzioa:** Ainhoa Oartzabal eta Ainhoa Aiertza **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Lege-gordailua:** SS-202/94 **ISSN:** 11354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esaneren eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



## Badoaz kurriloak



JOSEBA ERKIZIA

**I**paraldeko hotzetatik ihesi hegoalderantz, negua igarotzeko leku epelaren bila.

Zirraragarria iruditu zait beti haien karranka hotsa zeruan, hunkigarria haien auzolana hegaldian. Halabehar biologikoak bultzatuta, badoaz berriz ere bertiereko mudantza horretan. Horren libre eta horren gatibu!

José Antonio Ortega eta Cosme Delclaux ere gatibu dira. Baina horiek ezin izango dute negualdia non igaro erabaki ere. Harpean pasa beharko dute. Bigarren negua izango du zuloan Ortega. Lerro hauek idazten ari naizen eguncan 38 urte bete ditu, eta hirurehun eta hamargarren eguna egin du bahituta. Aise esaten da.

Bahitzaileek euskal presoen egoerarekin uztartu nahi izan dute ekintza hori. Hain zuzen ere, Ortega espetxe-funtzionarioa delako dago bahitua, ez beste ezergatik. Delclaux, berriz, enpresaria delako, "euskal iraultzak" aurrera egiteko behar duen euskarri ekonomikoan enpresariak beren puska jarri behar dutelako, omen.


Baina aske izateko eskubidea, pertsona ororen oinarri-oinarrizko eskubide izan beharko lukeena, jarri ote daiteke inoren interes politiko partikularren mendean?

Ez ote dira konturatzen jarrera horrek berak zurrizten eta eragiten dituela beste postura onartezin batzuk? Ez ote dira ohartzen herrian sortutako haustura gero eta sakonagoa dela? Ez ote dute ikusten gizartea gero eta pitzatuago uzten ari direla? Edo akaso bai?

Izan ere, euskal preso politikoak Euskal Herrira biltzeko eskaria dabil azken honetan hitzetik hortzera nonahi. Eta urrats hori emateko behar den katearen giltza dutenek -han urrun- uko egiten diote zilegia den, oinarri-oinarrizko eskubidea ere baden, eskari horri. Diotenez, giro politikoak ez du presoen sakabanatzeari amaiera amaten uzten. Baina, jaingoaren izenean!, jarri ote daiteke bada preso orok bere herritik ahalik eta gertuen egoteko duen eskubidea inoren interes politikoen mendean? Ez ote dira konturatzen zenbat familia, zenbat lagun alperrik sufriarazten duten? Ez ote dira konturatzen horrelako jarrerekin urrezko aitakia jartzten ari zaizkiela indarzaileei? Ez ote dute ikusten Euskal Herriko kale bazter guztietan gatazka seinaleak uzteko bidea egiten ari zaizkiela betikoei? Edo akaso bai?

Bitartean hemen ez dago industria sustatzerik, kultura kanterik, euskara bultzatzerik, herria egiterik.

Badoaz kurriloak, joango dira hegaberak ere. Baina, beti bezala, itzuliko dira mitxiguak txilioka. Horiek baino lehenago etxean egotea opa diet José Antonio Ortegaari eta Cosme Delclauxi, zin-zinez.



## ETA ZUK, BA AL DUZU BIRZIKLATZEKO OHITURARIK?

*Inoiz baino zabor gehiago egiten dugun garai honetan, zabor hori gutxitzeko edota behinik behin, sortzen ditugun hondakinak berriro erabiltzea posible izateko, zaborra birziklatzeko ontziak jarri dituzte. Papera eta kristalezko botilak biltzen dira ontzi berezi horietan, eta dirudienez, jendeak gauzak birziklatzeko ohitura gehiago du gaur egun. Herrita-*

*rrek hondakinak birziklatzen ote dituzten jakin nahian irten gara kalera, eta erantzun digutenaren arabera, zintzo-zintzo banatzen dute guztiak birziklatu beharreko zaborra eta gainerakoa. Hala ere, nahiz eta zaborra birziklatzeko ohitura orain handiagoa den, birziklatzeko ahalik eta hondakin gutxien egitea da lortu beharrekoa.*



**Asvin López,  
ikaslea. Asteasu.**

Papera eskolan birziklatzen genuen lehen. Etxean ere kristalezko botilak eta papera ez dugu gainerako zaborrarekin batera edukitzen: birziklatu egiten dugu. Hala ere, askotan, papera beste hondakinekin batera botatzen dugu zaborretara.



**Mari Jose Artola,  
dendaria. Andoain.**

Etxean ez ditut gauza asko birziklatzen, baina pilak eta botilak adibidez, birziklatzeko jarri dituzten edukin-ontzietara botatzen ditut. Dendako kaxak eta kartoia berriz, birziklatzeko zabor-ontzietara botatzen ditut. Garrantzitsua iruditzen zait birziklatzea, eta gainera, ez da lan handia.



**Antonia Lasa,  
etxeandrea. Aduna.**

Bai. Zabor-ontzi ezberdinetara botatzen ditut kristalezko botilak, papera eta zaborra. Oso ongi iruditzen zait birziklatzea, kutsadura gutxitzeko, behinik behin.



**Irati Guridi,  
ikaslea. Zizurkil.**

Papera, birziklatzeko jarri dituzten edukin-ontzietara botatzen dut, eta kristalezko botilekin ere gauza bera egiten dut. Orain, plastikoak birziklatzeko edukin-ontziak jartzea falta da. Eskolan eta etxean erakutsita hartu dut birziklatzeko ohitura.



**Eusebio Campos,  
langilea. Billabona.**

Nik paper fabrika batean egiten dut lan, eta beraz, zer esango dizut! Baina etxeako egunkariak eta antzekoak birziklatzen ditut: papera, kristala eta zaborra bereiztu ondoren, bakoitza, dagokion zabor-ontzira botatzen dut. Birziklatzea beharrezkoa dela iruditzen zait.



**Jaione Goia,  
langilea. Andoain.**

Egunkariak eta botilak birziklatzen ditut. Etxe ondoan daude edukin-ontziak, eta beraz, ez zait ezer kostatzen zaborra leku horietan uztea. Bestelako edukin-ontzirik ezagutzen ez dudanez, zaborretara botatzen dut gainerako hondakin guztia. Pilentzako ontzien beharra ikusten dut.


**KIROL JANTZIAK**  
**Lirana**

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47

**ANDOAIN**


**Talleres  
Mendi S. L.**

Burdinezko piezen egintza,  
planuen araberakoa.  
Pieza hidraulikoak eta neumatikoak.  
Mekanizazioa.

Urrietako bidea, z/g. ANDOAIN  
☎ 59 04 52 - 59 05 08

# ERRETAULA JARTZEKO LANAK HASI DITUZTE

## Eguberrietarako amaitu nahi dituzte lanak

*Elizako erretaula nahikoa hondatuta zegoela eta konpontzeko kendu egin zuten duela pare bat urte. Erretaula jaisten ari zirela, XVI. mendeko erretaula zaharra agertu zen gaurkoaren atzeko paretan margoturik. Euskal Herrian aurkitu duten garai horretako erretaula bakarrenetakoa denez, jendeak margo baliotsu hori ikusi ahal izateko lanak egiten ari dira Larraulgo elizan. Era berean, eta herritarrek meza betiko erretaularen aurrean entzun nahi dutenez, erretaula hori zaharra baino hiru metro aurrerago jartzen ari dira orain.*

**A**paiz-etxeko gela batean entzuten dute meza larrauldarrek elizako lanak amaitu bitartean. Izan ere, erretaula zaharra ikusi ahal izateko eskailera eta balkoi antzeko bat egiten ari dira erretaula berriaren atzean, eta gainera, jendeak margoa ongi ikusteko argiak jarriko dituzte. Bestalde, oraingo erretaula berritua jartzeko lanak ari dira egiten, hori bai, lehen baino hiru metro aurrerago. Ondorioz, aldea eta inguruan zegoen guztia aurreratzeko lanak egin behar dituzte. Ute amaierarako lan horiek guztiak amaitu nahi dituzte eta 8 milioitik gora gastatu beharko dute horretarako.

### *Elizako kanpandorrea berrituta*

Elizako kanpandorrera igotzeko eskailerak garbitu eta txukundu berri dituzte. Era berean, ordularia dagoen gela ere berritu dute.



*Hilobi bat aurkitu dute elizan.*

# HERRIKO KONDAIRAK AZALTZEKO IBILALDIAK

## Herritik Alkizalderako bidea egingo dute hurrengo txangoan

*Josu Tellabide etnologoaren gidaritzapean, eta Donostiako Aranzadi zientzia elkartearen egitarauaren barruan, Larraulgo mitologia eta usadioen berri emateko ibilaldia egin zuten joan den hilean. Larraulgo herritik Usarrabiko basorainoko ibilbidea egin zuten, eta bidean, bertako zenbait kondaira eta ohitura azaldu zituen Tellabidek.*

**H**ogeita hamabost lagun inguru ibili ziren lau orduz Larraulgo toki eta kondaira esanguratsuenak ezagutzen Josu Tellabideren eskutik. Kondaira eta mitologiez gain, garai bateko ohitura eta lanbideei buruzko azalpenak ere entzun zituzten. Ondorioz, tolar zaharrak, errota, zerra zaharra eta Larraulen dauden bitxikeria gehiago ikusi zituzten.

### *Larraul ezagutaraztea helburu*

Ibilaldi horiekin herritarrei nahiz ingurukoek Larraulgo herriaren berri eman nahi zaie. Gauzak horrela, ibi-

aldi gehiago egiteko asmoa dute aurrerantzean, eta oraingoz egunik zehaztu ez duten arren, hurrengo txangoa Larrauldik Alkizara bitarteko txokoak eta kontuak ezagutzeko egingo dute.



*Txuringadiko errota*

# EUSKALDUNEN ZENTSUA

## Euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina

**Azaro bukaeran eman zaio hasiera herritarrek udalarekin euskaraz aritzeko kanpainari. Udaletik sortu den kanpaina euskararen normalkuntzarako lansailak burutuko du. Helburua, udalarekin harremana euskaraz izan nahi dutenek euskaldunen zentsuan izena ematea da.**

Udaleko euskara zerbitzuko arduraduna den Patxi Baztarrikak azaldu digunez, herritarrek edozein administraziorekin euskaraz egiteko eskubidea dute. Ondorioz, udalak, eskubide hori bete ahal izateko, euskarazko idatziaz indartzeko ardura hartuko du. "Euskaraz hitz egiten dakiten hamazortzi urtetik gorako herritarrek udalarekin harremanak euskaraz izateko burutuko da kanpaina. Euskarak erabilpena behar du, eta horretarako, biztunen beharrean aurkitzen da".

1988an egin zen horrelako lehenengo kanpaina, eta orduan, Andoain izan zen horrelako kanpainarik burutu zuen lehen herria. Hasi berri duten kanpainan, lehenik eta behin, udalak gutun ulerterrezak idatziko ditu, eta idatziaz ulertzeko hiztegitxo bat ere bidaliko du. Euskaraz irakurtzen dakiten hamazortzi urtetik gorako herritarrek ondorioz, kanpaina horren gora beherak argitzen dituen idatzia, udalaren gutuna eta hiztegi bat jasoko dute etxean egu-

notan. Gutun horretan udalarekin harremanak euskaraz izateko bete beharreko agiria agertzen da, eta eskaera hori bete ondoren, udaleko euskara zerbitzura bidali beharko dute hori. Kanpaina 5.500 andoaindarrei zuzenduko zaie.

### Etxeztxeko bisita

Kanpainaren berri emateko eginiko prentsaurrean esan zuten bezala, etxeztxeko bisitak ere egingo dituzte. Beraz, ez izateko aterik itxi. Izan ere, kanpainaren leloak dioen bezala: "Euskara indarrean jarriko dugu... zuk indar egiten badiguzu".



Udalak eta herritarrek harremanak euskaraz

AIURRIKOAK KANPAINA HORI EZAGUTZEN OTE DUTEN ETA BERTAN PARTE HARTZEKO ASMORIK DUTEN JAKITEKO IRTEN GARA KALERA. HONA HEMEN JASOTAKO ERANTZUNAK:


- **Ba al duzu udalarekin harremanak euskaraz burutzeko kanpainaren berri?**
- **Izenik emango al duzu euskarazko zentsu horretan?**



**Junkal Rodriguez, 27 urte, langilea.**

• Ez dut oraindik kanpaina horren berri izan: ez dut gutunik edota antzekorik jaso.

• Nik izena emango dut, baina nire senarrak ez daki euskara, eta beraz, ezingo du kanpaina horretan parte hartu.



**Joxe Eizmendi, 84 urte, jubilatua.**

• Bai. Aiurriko aurreko alean irakurri nuen lehenengo aldiz.

• Bai, nik emango dut. Badakit zenbait pertsonak erdaraz irakurtzeko ohitura gehiago dutela, baina hala ere, euskaldunek kanpaina honen alde lagunduko dutelakoan nago.



**Josetxo Zalakain, 48 urte, langilea.**

• "Euskara merkatal mundura" kanpainaren berri gutun bidez jaso dut, baina beste kanpaina horri buruz ez dakit askorik. Hala ere, euskararen erabilera bultzatzeko bada, ondo iruditzen zait.

• Adin batetik gorako pertsonen zaila egiten zaigu euskara batuko idatziaz irakurtzea, baina ni, pertsonalki, kanpainaren aldekoa naiz eta izena emateko asmoa dut.

# AZARO ETA ABENDU KULTURALA

## Musika, antzerkia eta erakusketak ikusgai

**Kultura batzordeak adin eta gustu desberdinei erantzun nahian ekitaldi ugari antolatu ditu urte bukaera bitartean. Haur, gazte eta helduek herriko zein kanpoko artistek eskainitako emanaldietara joateko aukera paregabea dute oraingoan.**

Azaro amaieran musika emanaldi asko izan dira entzungai. Izan ere, *Quinteto Alizé* taldea, udal musika eskola, Arkaitz Mendoza pianojolea, "Olagain" txistu eskolako ikasleak, txistu banda, tronpeta taldea eta Susana Cencillok kontzertu paregabeak eskaini dituzte.

Azaroaren 22tik abenduaren lehen bitartean berriz, pintura eta argazki erakusketa dugu ikusgai. Francisco de Asis, Olatz Irigaray, Cristina Matas, Aina Erentxun eta Asier Ituarte gazteen lanak Urigain kultura etxean daude ikusgai.

### Antzerkia denontzat

Kultura batzordeak "Antzerkia denontzat" izeneko kanpainaren bitartez antzerkirako zaletasuna piztea du helburu. Bertan, adin eta gustu guztietako ikuslegoarentzako antzezlanak eman-

go dira. Lehen, Tanttaka taldearen "El Florido pensil" antzezlanak izan da. Abenduaren 1ean berriz, Idurentzako "Robinson Crusoe" antzezlanak izango da ikusgai. Bertan, Robinson Crusoe gizon zibilizatuaren eta Bariku gazte basatiaren arteko harremana kontatzen da. Gazteentzako berriz, kafe-teatroko emanaldiak izango dira: Maria Luzarraga eta Kepa Gallegoren "Tentaldiak" antzezlanak abenduaren 12an, arratsaldeko 20:00etan Ganbaran. Bertan, bi pertsonaien arteko aitomenak direla eta, biak konturatuko dira, batzuetan, gauzak ez direla diruditen bezalakoak. Angel Ruiz eta Mariano Marinen "Kanta Animatuak" 13an izango da, gaueko 22:00etan, Ganbaran. Azkenik, La Dinamica taldearen "A pelo" antzezlanak, igandea 15ean, gaueko 21:00etan, Kurkurtzen. Abenduaren 22an berriz, 6 urtetik gorako umeentzat txotxongiloak izango dira La Salle antzokian. Izadiarekiko gizonak duen harrokeriazko jarrera salatzea du fabula horrek.

### Irakurketa bultzatu

Abenduan ekintza ugari antolatuko dira liburutegian. Abenduaren 11ean irakurketaren garrantzia eta irakurketarako irizpideak argituko dituen hitzaldia izango da gurasoentzat. Haurren adinei egokitutako ipuin kontaketak, eta haurrek gustuko duten liburua

hautatzeko kanpaina ere egingo da. Gauzak horrela, haurrek irakurri duten liburuetan laburpena egin eta liburutegian egongo den kutxan sartu beharko dute hori. Ondoren, zozketa bidez, liburu sorta bat jasoko dute sarituak.

### Laborderen 75. urtemuga

Laborde lantokiaren 75. urtemuga dela eta zenbait hitzaldi, bideo emanaldi eta argazki erakusketa izango dira ikusgai abenduaren 10tik 27ra bitartean. Laborden lanean ibili zirenei nahiz herritarrei zuzenduriko ekintzak dira. Garbiñe Egibar, kultur arduradunek azaldu digunez, "garai hartako Andoain ezagutu ez zutenei hori ezagutzeko modu ezin hobea dute oraingoan. Ezagutu zutenek berriz, momentu hoirek berrira gogora ekartzeko aukera izango dute".

Horrela, abenduaren 16an Jesus Altuna eta Juan Antonio Garmendia Elosegik Laborde familiari buruzko hitzaldia eskainiko dute abenduaren 18an, Marta Truchuelok zuzenduriko mahaingurua izango da.

Amaitzeko, abenduaren 28an zinema maratokia izango da Allurralde kiroldegian. Pelikula berriez osaturiko maratoki hori, beste gainontzeko ekintzak bezala, kultur arduradunentzako erronka handia izango da. Azken batean, herritarrek kulturako ekintzetara joatea ohituztat hartzea dute helburu.



Quinteto Alizé boskotearen kontzertua

# Zabala

Ordukari Bitxitegia



**RACER**

**TISSOT**

**LOTUS**

**SEIKO**

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN  
Gudari enparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - HERNANI

# 31 LOKOMOTOREA EUSKAL HERRIRA!

**Gutunak bidaliko dituzte instituzioetara**

**31 lokomotorea 1913-tik 1943ra bitartean Plazaolako ibilbidean ibili zen alde batetik bestera. Uholde, garraioaren kostu altu eta autobusaren konpetentziagatik, 1944ean Leonera eraman zuten lokomotorea. Leonen 1989 urtea arte martxan eduki zuten lokomotorea. Orain, ordea, 31 lokomotorea geldirik eta ahazturik dago Ponferradako trenbide batean.**


1994an sortu zen Trentxikiko 31 taldea. Hamar andoaindarrek osatutako taldearen helburua, 31 lokomotorea Euskal Herrira ekartzea da, eta taldeko partaide den Bitor Uriak azaldu digunez, lokomotorea jartzeko toki egoki bakarra Azpeitiako museoa da. Hamaika ekintza eta kanpaina egin dituzte bi urteotan: sinadura bilketa, argazki erakusketa, sentsibilizazio kanpaina, eta gauza gehiago. Trentxikiko 31 taldeak andoaindarren, Plazaola ibilbideko herrietako udalen, eta Azpeitiko museoaren babesa lortu dute ekimen horien guztien bitartez.

## Postal kanpaina

Ponferradako agintariekin elkarizketatu dira, baina lortu duten bakarra 11 lokomotora ekartzea posible izatea

da. *"Zertxobait dezepzionatuta gaudete. Gure asmoa elkartruke baten bidez 31 lokomotorea Euskal Herrirartzea da, baina ez dugu lortu. Eusko Jaurlaritzarentzako 11 lokomotorea ekartzea positiboa izan da, baina gure helburua ez da bete. Beraz, lanean jarraituko dugu".*

Jarraian postal kanpaina hasiko dute, eta Trentxikiaren postalak Eusko Jaurlaritzari eta Castilla Leoneko Garraio sailari bidaliko dizkiote. Horretarako herritarren partaidetza garrantzitsua dela azaldu digu Iñaki Otamendi taldekideak: *"Gutun baten bidez gure lana alferrikakoa ez dela eta herritarrok lokomotorea Euskal Herrira ekarri nahi dugula azaldu nahi diegu".*



ANDOAIN

# KARTELEN AUZIA

PPko zinegotzia den Carlos Cano-ren aurkako kartelak herriko hormetan ikusgai izan dira azken egunotan. Andoaingo Jarraik jarritako kartelak dira, eta bertan, PPko zinegotzia euskal preso politikoek jasaten duten dispersioaren erantzule zuzena dela diote. Horren aurrean PPko zinegotziak mehatxatuta sentitzen zela adierazi zuen. Ondorioz, bertako kide diren PSE-EE, EAJ-PNV eta EA alderdiek, PPko zinegotziaren aldeko agiri bat onartu zuten.

## Kartelak jartzea debekatua dago

Horrezaz gain, bada beste kartelen inguruan hika-mika ugari azkenaldian. Herriko bi gazteek 18.000 pezetatoko isuna ordaindu beharko dute HBko kartelak jartzeagatik. *"HB-ren militante babei isuna jartzea HBren kontrako kanpaina zikintzat jo behar dugu"* azaldu dute Herri Batasuneko kideek, eta neurri hori hartu duen EAJ-PNVko Maxen Zinkunegi zinegotziaren jarrera salatatu dute. *"HBrenak ez diren kartelak ere hormetan jarri dira eta horiei ez zaie isunarik ezarri"* azaldu dute HBko kideek. Maxen Zinkenegiren esanetan, Ertzaintzak ezarritako salaketa bideratu baino ez dute egin. *"Badakigu herrian kartel gehiago ezarri direla, baina guk, udaltxean jasotako salaketa bideratu dugu bakarrik. Arauak bete ditugu, besterik ez".*

A

**MEDIKUA  
OSTEOPATA**

•LUNBALGIAK •ARTROSIK  
•GIHARRETAKO MINAK ETA ABAR...

KALE NAGUSIA, 7 - 1. ESK. ☎ 59 40 02  
20140 ANDOAIN

RPS. N.º 121/96

## ONDARRETA

TABERNA

*Plater konbinatuak*

*Ogitartekoak*

*Pintxoak*

Ondarreta 9, behea ☎ 59 36 27 ANDOAIN

Arkume eta  
txerrikume erreak  
enkarguz

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROLAK  
EDURNE**

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

**ANDOAIN**



# ESKULANAK LIZARDI ETXEAN

**Ostegunetan eskulanak; asteartetan berriz, gakorratz ikastaroa**

*Hogei lagun inguru biltzen dira ostegun arratsaldetan Lizardi Etxean eskulanak egiteko. Bakoitzak gustuko dituen eskulanak egiten ditu Josune Lazkano irakaslearen gidaritzapean, eta oraingoz, abendura arte iraungo du ikastaroak. Ikasleek lasaitzeko edota zerbait polita egiteko joaten direla esan digute, eta izan ere, artelan ikusgarriak egiten dituzte asteasuar artista anonimo hauek.*



*Lan ugari egiten dituzte*

**I**kastaroko partaide bat buztinezko ontzi bat margotzen ari den bitartean, marrazki bat egiten ari da beste partaide bat ispiluan. Bakoitzak berak nahi duen eskulana egiten du, eta Josune Lazkano irakasleak bakoitzari bere eskulana egiten laguntzen dio. Eskulanak egiteko behar duten materiala bakarrik ordaindu behar dute, gainera. Emakumeak dira ikastaroko ia partaide guztiak, eta eskulanak kontu-kontuari aritzeko edota lasaitzeko egiten dituztela aitortu digute. Batzuk aurrez ere eskulanetan aritutakoak dira, eta etxean eskulanak egiten duenik ere bada. Lan asko


eta politikak egiten dituzte guztiak, eta behar bada, behin lan guztiak amaitu ondoren, eskulanan erakusketa egingo dute. Oraingoz, ordea, nahikoa dute eskuartean dituzten eskulanak amaitzearekin, eta noski, ikastaroak maitzera arte irautea espero dute.

### **Gakorratz ikastaroa**

Astearte arratsaldetan orratzak eta haria hartu eta dozena erdi bat emakume biltzen dira Lizardi etxean gakorratza egitera. Asteasuko emakume batek erakusten die, eta ikastaroan parte hartu nahi duen edonork zabalik ditu Lizardi Etxeko ateak.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:




*fundazioa*  
*fundación*

**JOSE ANTONIO URBIETA**  
**GARRAIOAK**

**URTE OSOAN**  
**SU EGURRA**

BELARRA ETA LASTOA BERE GARAIAN



Lege Zaharren Enparantza, 4 -2  
ASTEASU (Gipuzkoa)  
☎ 69 26 76 - 69 30 92

**VAC VAC** **HOL - ATZ** 

VACSOL - WIT TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

**OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA**

**PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN**  
**AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA**

Elbarrena, 2/g.  
☎ 69 30 63 - 69 07 34  
ADUNA

# FUTBOL-SALAKO TALDEAK SERIO HARTU DU DENBORALDIA

**Juanjo Aginaga andoaindarra dute entrenatzaile**

**Gazteok parrandaz parranda ibiltzen garela diote askok. Billabonako hamabi mutilek, ordea, parrandan ibiltzeaz gain, futbol salan jokatzeko afizioa dute. Asteazkene-ro entrenatzen dute, eta aurten, entrenamentu serioagoak egiten dituzte: Juanjo Aginaga entrenatzaileak entrenatzen ditu.**

Aurrez futholean ibilitakoak dira guztiak, batzuk gainera, elkarrekin ibilitakoak. Beraz, futbola gustukoa dutelako osatu zuten taldea duela pare bat urte, baina orduan ez zuten entrenatzen: partidua bakarrik jokatzen zituzten. Aurten, ordea, Gipuzkoako Futbol Sala Elkarteak antolatzen dituen partiduetan jokatzeko 200.000 mila pezeta inguru gastatu beharko dutenez, serioago hartu dute futbola. Ondorioz, Juanjo Aginagak entrenatzen ditu astein behin, eta Ocaso

aseguru etxeak eta Uztargi tabernak berriz, taldea babesten dute. Etxeko partidua ez dituzte Billabonan jokatzen herrian kiroldegirik ez baitago: Lasarteko kiroldegian jokatzen dituzte partidua.

### **Hamaika talde elkarren lehian**

Gipuzkoako beste hamar talde eta Billabonako aritzen dira elkarren lehian, eta Andoaingo taldea oso ona dela esan digute. Billabonako

taldea azkenaurreko postuan dagoen arren, ahalik eta posturik altuena lortzen saiatuko direla esan digute jokalariek. Izan ere, lehenengo lau postuetan gelditzen direnek diru kopuru garrantzitsua lortzen dute. Bost partiduetatik bi galdu, bi enpatatu eta bakarra irabazi dute orain artean. Hala ere, kirol piska bat egiteko elkartzen direla aitortu digute.



*Arinak daude futbolariak*



**BRONTE**  
ZENTRU  
OPTIKOA

ZURE IKUSMENA  
GRADUATZEN DUGU  
KONTAKTU LENTEAK  
GORRENTZAKO APARAILUAK

Kale Berria. 36 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA

---



**BRONTE**  
ORTOPEDIA

NEURRIRA EGINDAKO ORTESIAK,  
PROTESIAK eta PLANTILAK  
TAILERRA BERTAN

**OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA**

Kale Berria. 36 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA  
RPS. n° 53/96

# TXURRUT

taberna

BERRIA

*parrandarako  
girorik jatorrena*

*Txermin kalea 8 BILLABONA*

ASESORIA  
GESTORIA  
ASEGURUAK

## ALDAMA - TAPIA

---



---

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

Kaleberria 22  
Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67

**20140 ANDOAIN**

**AIURRI**

47. zenbakia 1996ko azaroaren 29a

# TRASMISIO KANPAINA

## Gurasoek euskararen aldeko jarrera edukitzea da kanpainaren helburua

**Billabonako udal euskaltegiaren ekime-  
nez, euskararen transmisio kanpaina  
hasiko du laister udaleko euskara bat-  
zordeak. Haurrek ikastetxean euskaraz  
hitz egiten ikasi arren, beharrezkoa da  
familian giro euskalduna izatea hau-  
rrek euskaraz hitz egiteko. Beraz, hau-  
rrek euskara erabiltzeko gurasoen  
inplikazioa lortu nahi dute.**

**T**rasmisio kanpaina 0-6 urte bitarteko haurren gurasoei zuzenduko zaie hasiera batean. Izan ere, adin horretako haurrek familiaren eragin zuzenagoa jasaten dute, eta beraz, euskararen transmisioa ziurtatzeko oso garrantzitsua da familiaren pape-  
ra. Ondoren, 7-12 urte bitarteko haurren gurasoekin lan-  
duko dute ekimen hau, eta eskolaren parte hartzea han-  
diagoa izango da azken talde horretan.

Lau talde ezberdinetan banatu dituzte transmisio kanpainako protagonistak izango diren gurasoak: le-  
henengo taldea, euskaraz hitz egiten ongi dakiten gu-

rasoek osatuko dute; bigarrena, bi gurasoetako batek euskaraz ongi hitz egiten dutenen taldea izango da; hi-  
rugarrena, bi gurasoek edota bietako batek euskaraz ongi hitz egiten ez dakitenek osaturikoa; eta azken tal-  
dea, guraso erdaldunek osatuko lukete.

### **Ikastaro eta helburu ezberdinak**

Guraso talde bakoitzarentzat ikastaro ezberdinak antolatuko dituzte, eta lortu beharreko helburuak ere ezberdinak izango dira. Euskaltegiak eskainiko dituen ikastaro horiek, transmisioari buruz gurasoak informa-  
tu eta sentsibilizatu ondoren hasiko dira.

Euskaraz dakiten gurasoei, gurasoak alfabetatzeko eta haurrei etxeko lanak egiten laguntzeko ikastaroa eskainiko zaie. Bi gurasoetako batek euskaraz ongi dakienean, eta gurasoetako batek ez dakienean, etxe-  
ko hizkuntza euskara izaten saiatuko dira. Horretarako, euskara txukun erabili, irakurri eta idazteko ikastaroa egingo dute. Azkenik, bi gurasoak eldaldunak dire-  
nean, euskararen aldeko jarrera bultzatzen saiatu dira. Ondorioz, guraso horiei ipuin euskaldunak kontatzen, agurrak eta aginduak euskaraz ematen, eta finean, euskaraz komunikatzeko moduak eraku-  
tsiko dizkiete.

## HITZALDI ARRAKASTATSUAK JUBILATUEN TXOKOAN

### Abenduaren 5ean, arratsaldeko 17.00etan: azken hitzaldia

**Biltoki jubilatutako elkarteak eta Billabonako Eros-  
kik "Los mayores y la sociedad" izenburupean  
antolaturiko hitzaldi sorta amaitzean dago. Sei  
hitzaldi izan dira guztira, eta oraingoz, bost  
egin dituzte. Azkeneko hitzaldia abenduaren  
bostean egingo dute, eta bertan Fernando  
Etxebarriak hitz egingo du hirugarren adineko  
pertsonek eskubide eta arazoei buruz.**

**O**rain arteko hitzaldietan jende asko bildu da, izan ere, hitzaldien gaiak nahikoa interesga-  
rriak izan dira. Adin helduko pertsonen izaten  
dituzten gaixotasunak eta etxean gertatzen diren eror-  
ketak nola aurrikusi izan dira bi hitzaldien gaiak. Beste  
bi hitzaldietan berriz, elikaduraz eta kalitatezko bizi-  
modua lortzeko moduetaz jardun dute. Zaharren egoi-  
tzetako ohiturak eta bizipenak ere azaldu dituzte hitz-  
aldiren batean.

### **Eskerrak eman**

Biltoki jubilatutako elkarteak eskerrak eman nahi dizkie hitzaldiak ematera nahiz entzutera etorri diren guztiei, eta aurrerantzean antzeko ekintzak egiten jarraitzeko asmoa azaldu dute.



Rafael Marin "Labar" taldeko bizlaria



# ZENTROARI BURUZKO AUZIA

**Elizak Zentroa bota nahi du, eta gazteek akordio batera heldu nahi dute**


*Elizak bota egin nahi du Zizurkil goiko Zentroa. Bi gela handi eta taberna bat daude bertan, eta hogeita hamabi urtez herriko gazteak biltzeko lekua izan da. Lehen Zentroak betetzen zuen funtzioa gaur egun Iriarte Etxeak betetzen duela, eta eraikuntza itsusia delako bota nahi du elizak Zentroa. Zizurkil goiko gazteek aldiz, Zentroa botatzea bidezkoa ikusten duten arren, akordio batera heldu nahi dute: Zentroa bota bai, baina Zentroa egin aurretik zeuden zimiterioa eta lokalak berriro egitea nahi dute.*

**T**abernarako maizter berria aukeratu behar zutenean esan zien elizak gazteei Zentroa bota egin nahi zuela. Lokala itsusia delako, eta Zentroak betetzen zituen funtzioak orain Iriarte Etxeak betetzen dituelako bota nahi dute eraikuntza. Gainera, gazteek eraikuntza egiteko baimena eskatu zutenean Zentroa elizarentzako zela esa n zutelako, eta lokala elizaren lurretan eginikoa delako, elizak, Zentroa botatzeko eskubidea

duela dio. Gazteek bidezkoa ikusten dute Zentroa botatzea, lokala itsusia delako, gehienbat. Elizaren lurretan eginiko eraikuntza dela ere onartzen dute, baina lokala gazteek auzolanean eta beren diruz eginikoa dela azpimarratzen dute. Bestalde, lokala egiteko baimena duela hogeita hamabi urte eskatu zutela diote, eta beraz, baimena jasotzeko beharrezkoa izan zen lokala elizako gauzetarako zela esatea. Hala ere, gazteen ustetan, elizako lokalek beti izan dute erabilera herrikoia, eta gainera, horrela behar du izan. Azkenik, gazteei ez zaie iruditzen Iriarte Etxeak Zentroak betetzen dituen funtzio guztiak betetzen dituenik.

## **Akordioa nahi**

Herri bilera bat egin dute Zizurkil goian arazo hau eztabaidetzeko eta argudio ezberdinak azaltzeko. Argudio horiek guztiak azaldu ondoren, gazteek, proposamen bat egin dute: Zentroa bota bai, baina horren ordean Zentroa egin aurretik zeuden zimiterioa eta lokalak berriro egitea proposatzen dute. Lokal horiek, noski, herritar guztiei irekita egongo dira.



*Herri bilera bat egin dute*

Eliza eta gazteak harremanetan dauden bitartean, udalak, urte amaierako epea eman diete adostasun batera ailegatzeko. Ondoren, akordiorik izan ala ez izan, udalak Zentroa bota egingo du. Beraz, Zentroa bota egingo dutela nahikoa argi egon arren, ez dago batere argi horren ordean zer bait egingo ote duten: eliza eta gazteak gehiagotan bilduko diren ere ez dago argi.

## **ZURRUNBILO EGUNA** **250 haur elkartu ziren**

**T**olosaldeako parrokiak 10 haur taldek hartu zuten parte hilaren 16ean herrian ospatu zuten Zurrumbilo egunean. Goizeko hamarrak aldera hasi zuten festa eguna, eta mezetara joan ziren lehenik haur guztiak. Ondoren, txistorra jan eta dantza piska bat egin eta gero, Zizurkil gora igo ziren bazkaltzera. Bidean irrintziak, dantzak eta jolas gehiago egin zituzten, eta bazkaldutik ondoren pilotan jolastu zuten. Eguraldia hotza izan arren, ongi pasatu zuten guztiak.



*Jolasean igaro zuten eguna*

Goizeko 10:30etan eman zioten hasiera San Martin eguneko festari, eta ordu horretan Meza Nagusira joan ziren herritarrak. Meza ondoren herri kirolak ikusteko aukera izan zuten, eta aizkolari, harrijasotzaile eta korrikalari ez osaturiko bi talde aritu ziren elkarren arteko lehian. Lazkano eta Mañukortaren bertsoak ere ez ziren falta egun osoan zehar. Herri bazkarian Billabonako Udaleko ordezkariak eta baserritarrek elkarrekin bazkaldu zuten goizeko ospakizunekin amaitzeko. Arratsaldeko ekintzarik aipagarriena, Amasako II. pala txapelketaren finala izan zen. Ondoren Oskar eta Aitziber trikitalariak eta bertsolariak aritu ziren jai giroa berotzen.

**“Etxean txerriak hiltzeko ohitura galdu da”.**

Festan egon zirenek azaldu zigutenez, *“urtero giro ona izaten da. Iaz eguraldi txarra egin zuen arren, festa aurrera jarraitu zuen. Aurten ere eguraldi botza ez da oztopo izan”.*

San Martin egunean txerria hiltzeko ohitura izaten zen garai batean. Orduan baserritarrek txerria hil eta inguruko baserritarrei odolkiak eskaintzen zizkieten. Egun, ordea, higiena dela eta, tradizio hori galdu egin da. Mataderietan hiltzen dira egun txerriak.

### San Martinen bizitza eta kondaira

San Martin 316. urtean Panonian jaio zen, Hungarian. Aita militarra izanik, hamabost urtekin ikasketa militarra hasi zituen. 356. urtean armada utzi eta fraide bizitza hasi zuen Milanen. 371. urtean, ordea, Tourseko apezpiku izendatu zuten. Marti-

# SAN MARTIN EGUNA, BASERRITARREN FESTA

**Amasan ospatu zuten Beterri Garaiko baserritarrek beren eguna**

*San Martin eguna azaroaren 11an ospatzen da. Egutegian lanegun gisa azaltzen den arren, baserritarren festa eguna izaten da. Amasako festen barruan ospatu dute Beterri Garaiko baserritarrek San Martin eguna.*



**Herri kirolak izan ziren**

nek penitentziatzeko bizimodu latza eramanez bide zuten eta misiokuri lanetan nabarmendu zen. Marmoutierreko monastegia fundatu zuen, gero apezpiku eta apaiz erreformatzaileen egoitza izan zena, hain zuzen. Priscilianoren bizitza salbatzeagatik priscilianistatzat salatu zuten eta bere lanak kritikatuak izan ziren. Bere elizbarrutira erretiratu eta apaiz lanetan jarraituko zuen hil arte, 397. urtean alegia.

San Martinen inguruko kondaira ugari entzun ahal izan dugu eta de-

nek eliz zaharren eraikuntza dute gaitzat. Kondaira batek dioen bezalaki. Amasan, herritarrak eliz egiten hasi omen ziren Billabonako herrigunean. Egunez biltzen zuten materiala, gauean, Amasako eliza dagoen mendiskara eramaten omen zuten San Martinek. Gauza bera behin eta berriaz gertatzen zenez, azkenean etsita, herritarrek, San Martinek nahi zuten lekuan eraiki omen zuten eliza. Tradizio horri jarraituz, ospatzen dute Amasan, San Martin eguna urtero.

**S T O P**  
**LIBURUDENDA**  
 TESTU LIBURUAK  
 AUKERA ZABALA LIBURUTAN  
 (Ingelese, frantsesez,  
 italieraz...)  
 Agustín Leiza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

**LEIZARAN**  
 MARKOZKETA TAILERRA S.L.  
 Kaleberria, 40  
 20140 ANDOAIN  
 TEL.: 59 33 39  
 FAX. 30 01 57  
 OLEOAK, MARRAZKIAK, AKUARELAK, ESKUZ EGINDAKO ARGAZKI EUSKARRIAK

# ZABORRAK JANGO GAITU

**Sei herrietako zaborra Tolosara eramaten dute**


*Eguno eta etorkizuneko arazo larrietakoa zaborra da. Egunero zabortegietara botatzen dugun zabor kopurua izugarria da, eta Tolosako San Blas zabortegia gainezka egiten ari da. Andoain, Billabona, Aduna, Zizurkil, Asteasu eta Larraulgo bizilagun*

*bakoitzak kilo erditik gora zabor egiten du egunero. Guztioi dagokigun arazoa da, eta beraz, irtenbide egokiena bilatu eta bideratzea ezinbestekoa da. Zaborraren arazoa udalei, eta bereziki, herritarrei dagokie; kontsumoa neurtu beharrean gaude.*

**H**ondakinak poltsan sartu eta horretarako ezarri dituzten ontzietara botatzen dugu egunero. Hortik aurrera, zabor poltsak eragiten dituen ondorioak eta arazoak ez ditugu kontutan hartzen. Herritarrek badugu zenbait betebeharrak zaborraren inguruan, izan ere, zaborrak jasotzen dituzten zerbitzuak eskaintzen zaizkigu, eta ondorioz, araudi bat bete behar dugu. Udalek araututako ordutegi eta lekuetan utzi behar dira zabor poltsak, nahiz eta askotan ez ditugun arau horiek betetzen. Maxen Zinkunegik, Andoaingo Udaleko zerbitzu batzordeko zinegotziak azaldu digunez, herria garbi edukitzeko lanak egiten hasi dira: *"Duela lau hilabete herriko hondakinekin zer egin zehazteko araudia onartu genuen. Zaborra arratsaldeko 19.00tik aurrera eta poltsa egokietan bilduta atera behar dela adierazi genuen. Horrezaz gain, astebukaeran kalean zaborrik ez uztea erabaki genuen ere. Hala ere, jendeak ez ditu arau horiek errespetatzen"*.

**"San Blaseko zabortegia hiru urte barru bete egingo da"**

Andoain, Billabona, Aduna, Zizurkil, Asteasu eta Larraulgo uda-



*Zaborra arautako orduan jaitsi behar da*

lerriek ez dute hondakin kopuru bera sortzen, baina herri guzti horiek badute zerbeitz amankomune: sei herrietako zaborra Tolosako San Blas zabortegira eramaten dute, beste herri batzuetako zaborrekin batera. Gipuzkoako Foru Aldundiak zabortegi horren inguruan eginiko azterketa batek dioenez, San Blaseko zabortegia hiru urte barru bete egingo da. Beraz, urte gutxira Goierriko Sasietako zabortegira eraman beharko da zaborra.

Oraingoz, Tolosako San Blas zabortegian, zaborra zanpatu eta lurrarekin nahastu baino ez da egiten. Beste zabortegi batzuetan bezalaxe, San Marcos (Donostian) eta Sasietan adibidez, energia mota berriak errekuperatzen hasi dira hondakin horietatik. Gipuzkoan zabo-

rrarekin zer egin arazo larri bilakatu da. Horren aurrean, hiruzpalau makro-zabortegi egiteko planteamenduak egiten ari dira. Gauzak horrela, Gipuzkoako herrietako zaborra lau zabortegi hoietara eramango lukete.

**Errausketarik ez dute egingo**

Zaborrari irtenbide bat eman nahian errausgailu bat egitea proposatu zuten, baina orain, alde batera utzi dute proposamen hori. Zaborra labe antzeko batzuetan erreko litzateke, baina errausgailua martxan jartzeko egunero beharko lukeen zabor kopurua oso handia behar luke ere izan. Horrezaz gain, beste zenbait eragozpen badaudelako alde batera utzi dute proposamena. *"Ikerketa batzuren ondoren, errausgailua-*

ren kostua eta kutsadura maila ikusi eta gero, irtenbide desegokia dela konturatu da Foru Aldundia. Errausgailu bat edukita ere, zabor-tegi bat beharko litzateke, eta beraz, irtenbide egokiena zaborra berziklatzea berrerabiltzea eta zaborra murriztea dira; azken batean, kontsumoa neurtzea”, azaldu digu Eguzkiko Garikoitz Plazaolak.

Birziklatzeaz gain, badira beste neurri batzuk, baina oso gutxi erabiltzen dira. Eguzkiko kidearen us-tez, neurri horien inguruan eritzi faltua dago: zaborrak murriztuz eta berrerabiliz emaitza baxuak lortzen direlako uste okerra oso zabaldua dago jendearen artean. Saiatuz gero etekin handiak lortu daitezkeela azpimarratu digu Garikoitzek: “Enpresekin bitz eginez gero eta jendea kontzientziazatuz gero, arrazoizko kontsumoa bidera dezakegu. Herritarrei zabor gutxiago sortzeak duen garrantzia ulertarazi behar diegu.

## “Birziklatzea bera baino garrantzi gehiago du ahalik eta zabor gutxien sortzeak”

Birziklapena herritar askok eza-gutu eta aurrera eramaten duten neurria da; herriko edukinontzietan jasotako paper eta beira kiloek baieztatzen dute hori. Edukinontziak auzo guztietan jartzea ezinezkoa den arren inguruan beti izaten da bat edo beste. “Andoainen adibidez, urte bukaerarako edukinontzi gehiago jartzeko eta zaharrak baztertu edota berritzeko asmoa dugu”, azaldu digu Maxen Zinkunegik. Adunan eta Zizurkilen lurrazpiko edukinontziak ezarri dira, eta Andoainen hurrengo urterako antzekoak jartzeko asmoa dago.



Andoaingo kanposantura bideko zabortegi inkontrolatua

### Informazio falta eta kontzientziazio kanpaina

Eguzkiko bozeramailearen esanetan, edukinontzi kopuru egokiaz gainera, kontzientziazio kanpaina beharrezkoa da: “Jendeari zantzak argitzea eta zaborren eragina azaltzea garrantzitsua da oso. Zoritxarrez askok ez dakite txartutako sendagaiak botiketari berriro biltzen direla. Planifikazio egoiki baten beharra dago”.

Informaziorik ezarekin bukatzeko, orain, Andoainen hondakinak behar bezala erabiltzeko gida kaleratu dute. Bertan, herrian jasotako zaborra, beira eta paperen in-

guruko informazio eta zenbait aholku eman dira.

Herri bakoitzeko zabor, beira eta paper kiloen jarraipena hondakinaren bilketaz arduratzen diren enpresek daramate. Horrela, sei herrietako zaborra Tolosako zabortegira eramaten duen “Tolosaldea Garatzen” enpresaren ardura da informazio hori udaletara eramatea. Era berean, papera eta beira biltzen duten enpresek ere gauza bera egiten dute. Bertako datuei so eginez gero, Beterri Garaiko bizi-lagun bakoitzak kilo erditik gorako zaborra egiten dugula ikusi dugu; askotxo, behar bada.

1995KO ZABOR KOPURUA			
95 URTEA	ZABORRA	BEIRA	PAPERA
ANDOAIN	3.600.000 K	205.485 K	193.927 K
BILLABONA	1.584.000 K	56.468 K	66.423 K
ADUNA	58.000 K	7.388 K	1.785 K
ASTEASU	161.900 K	25.530 K	9.102 K
ZIZURKIL	690.00	31.866 K	34.529 K
LARRAUL	30.250 K	7.807 K	1.728 K



# ROSA AGUILAR: "ESTATUAREN ANTOLAKUNTZA BERRIA BEHAR DUGU"

*Espainiako kongresuan IU-EBko bozeramalea den Rosa Aguilar-ek hitz egin zuen aurtengo Politika Plazara hitzaldi sortaren lehen hitzaldian. "Ezkerra eta nazionalismoak" izenburuko hitzaldian, bi kontzeptu horien arteko batasunaz, Estatu Espainiarrak behar duen estatu eredu berriaz eta Euskal Herriko egoeraz aritu zen solasean. Herritar asko eta politikari ezagunak bildu zituen hitzaldian EAJ-PNVko Garbiñe Egibar zinegotziak azaldu zuenez, aurrerantzean, Euskal Herriko kanpoko politikari eta emakume hizlari gehiago gonbidatuko dituzte. Guk lehenengo hitzaldi hori laburtuko dugu jarraian.*

**Aiurri:** Ezkerra eta nazionalismoak. Egun, dirudienez, bi kontzeptu horiek ez dira ildo berekoak...

**Rosa Aguilar:** Egungo nazionalismoek bi norabide ezberdin dituzte: bata positiboa, eta bestea berriz, negatiboa. Lehenengo norabidea jarraitzen dutenek, herriaren aldarrikapen demokratiko bat eskatzen dute, hau da, herriaren historia, identitatea eta abar errespetatzea. Beste norabidea segitzen dutenek aldiz, gizartearen aldaketak eta berdintasun beharrak ez dituzte kontutan hartzen. Gaur egun gainera, ekonomiaren mundializazioa dela eta, nazioaren subiranotasuna ez dago estatu bakoitzaren esku; bere gainetik dauden indar ekonomiko, politiko eta militarren esku dago. Alderdi nazionalista eskuindarrek, nabiz eta kontraesankorra izan, bat datoz antolaketa politiko horrekin. Eskuindarren aberria merkatua da.

## "Eskuindarren aberrria merkatua da"

Horrek guztiak, bestetik, nazionalismo etniko-kulturalak eta deszentralizazio eskaerak ugaritu ditu. Ondorioz, eskubide demokratikoen aldarrikapena alde batera utzi dute egungo nazionalismoek; batzuek egungo zentralismoa onartzen duten bitartean, beste batzuek garai bateko nazionalismoaren ametsa, hau da, estatua lortzearen ametsa defendatzen baitute. Askok, gainera, indarra erabiliz.

**Ai.:** Zein alternatiba eskaintzen dituzue egoera hori konpontzeko; nola errespetatu daitezke berdintasun eta nazio eskubide horiek?

**R.A.:** Guk, IU-EBk, herrien subiranotasuna jarrera solidarioaren bitartez bakarrik lor daitekeela uste

dugu. Neoliberalismoak eragin duen ekonomiaren globalizazioari aurre egin behar diogu, eta barreman solidarioak dituen antolakuntza ekonomiko internazional berria sortu behar dugu. Ondorioz, Europako Elkarte Ekonomikoan gauden herriaren arteko barremanak berdintsunean eta solidaritatean oinarritutakoak izan behar dute; EEEko antolakuntzak plurinazionala eta federala izan behar du.

**Ai.:** Estatu espainiarrean herri ezberdinak edota autonomia elkarte ezberdinak daude. Batzuetan gainera, Euskal Herriaren kasu, aldarrikapen nazionalistak egiten dira behin eta berriz. Zer dio IU-EBk gai horri buruz?

**R.A.:** Euskal Herria European getatzen diren egoeren islada da. Guk Euskal Herriak autodeterminazio eskubidea duela esaten dugu, eskubide demokratiko bat da; herri bakoitzak berak nahi duen antolakuntza eta etorkizuna erabaki-



tzeko eskubidea du. Bestalde, Estatu espainiarra plurinazionala da, eta IU-EBren proposamena Espainia Estatu federala biburtzea da. Zergatik egiten dugu proposamen hori? Batetik, autogobernu eta deszentralizazio prozesuak ematen ari direlako, estatua gainditzen duten antolakimntza politikoekin batera. Bestetik, estatu zentralistek edota nazionalismo erradikalek berdintasunari eta solidaritateari oztopoak jartzen dizkietelako. Azkenik, estatu federalaren aldarrikapena XIX. mendeko ezkertze eta errepublikarren eskaera zelako, eta gaur egun ere, horrela izaten jarraitzen duelako. Herri ezberdinen arteko barremanak berdintasunean oinarrituko lirarteke estatu federalean. Egungo autonomien estatuan, ordea, ez da berdintasun hori bermatzen. Autonomia ezberdinek euren artean eduki nahi dituzten barremanak erabakitzea ez dute posible, adibidez.

**Ai.: Azkenaldian elkarrizketa ugari ari dira egiten Gobernu eta autonomi batzuetako ordezkarien artean. Nola baloratzen dituzue elkarrizketa horiek?**

**R.A.:** Nazionalistak motzak gelditu dira Gobernuarekin negoziatu dituzten gaietan; garaipen politikoak lortu dituzte, nolabaite esateko, baina herritarren nahiak ez dituzte lortu. Etekin politikoa lortzeko erabili dituzte nazionalistek negoziaketak. Partidu Popularreko gobernuak aldiz, ez du autonomiei eskubide gehiago emateko asmorik.

**“Etekin politikoak bakarrik lortu dituzte nazionalistek negoziaketetan”**

**Ai.: Gobernuaren aldetik nazionalisten eskaerei erantzuteko borondate politikorik ez badago, nola gauzatuko da zuek aldarrikatzen duzuen estatu federala?**

**R.A.:** Egungo autonomia estatua krisian dago, batzuek eskubide gehiago dituztelako kezkatzen dira besteak, eta finean, autonomien arteko ezberdintasuna ematen da. Ondorioz, XXI. menderako estatu eredu berria erabaki behar dugu estatuko indar politiko eta autonomietako ordezkarien artean. Erabaki hori ez da interes politikoak lortzeko izango; egungo bika-mikak konpontzeko eta transizioarekin behingoz amaitzeko izango da. Lehenengo fasea, autonomiak indartzea izango da. Beraz, senatua lurraldetasunaren ordezkaria izatea eta diputazioak desagertzea proposatzen dugu. Era berean, Estatuari nabiz autonomiei dagozkien kompetentziak zeintzuk diren zehaztea eskatzen dugu, autonomietako estatutuen garapena bultzatuz. Autonomien arteko berdintasuna bermatzeko, Estatu nola autonomiak finantzatzeko modua egokitzea proposatzen dugu, besteak beste. Fase honen ondoren etorriko da Konstituzioaren berrikimntza sakonagoa eta estatu federalaren sorrera. Estatuaren eredu berria indar politiko guztion ardura da, eta borondate politikoa izanez gero, guk proposatzen duguna lor daiteke. Azkenik, gizartearen parte hartzea aktiboa proposatzen dugu prozesu honetan guztian zehar: Euskal Herrian adibidez, biolentziaren aurka biltzen diren herritarrak dira gizarteak arazo politikoetan duen parte hartzearen eredu txalogarria. ■




Josu Jon Imaz izango da hurrengo gonbidatua



**ELEKTRATRESNAK  
SUKALDERAKO HALTZARIAK**



Arteta kalea, 1 eta 3  
☎ 59 12 26 - Faxe 30 03 45  
ANDOAIN



**Haltzariak**

Kaletxiki, 6 Fax - Telef. 59 07 61  
ANDOAIN

# XXXIII. MENDI ASTE ARRAKASTATSUA ANDOAINGOA

**Kale Nagusiko lokal berria inauguratu zuten hilaren hasieran**

*Euskalduna mendigoizale taldeak hilaren hasieran antolatu zuen mendi asteak jende ugari bildu zuen. Bidasoa arroaren azken ibilbidea egiteaz gain, Ramon Agirrereren Lurra izeneko erakusketa eta Indonesiari buruzko ikus-entzunezkoak izan ziren ikusgai aste horretan. Antton Iturrizak Euskal Herriko historia eta lezei buruzko ikus-entzunezko emanaldia eskaini zuen, eta eskaladari buruzkoa berriz, hiru eskalataile nafartarrek eskaini zuten. Euskadiko faunaren berri Joxe Miel Elosegiren eskutik izan genuen, eta Luxio Aranburuk Bidasoa arroaren itzuli osoaren ikus-entzunezkoak eskaini zituen. Astea amaitzeko mendi irteera eta babarrun jatea egin zuten Euskaldunako mendigoizaleek. Aipatu beharrekoa da urteroko batzarra eta lokal berriaren inaugurazioa aste berean egin zutela.*

**K**ale Nagusiko 31. zenbakian dauka lokal berria Euskalduna mendigoizale taldeak. Bulegoa, liburutegia eta bilerak nahiz hitzaldiak egiteko gela handi bat dago, besteak beste, lokal berrian. Diru eta lan asko kostatu den arren, lokal berria beharrezkoa zutela azaldu digu Euskaldunako lehendakaria den Nikolas Arruti andoaindarrak. Larehun bazkide inguru ditu mendi talde honek, eta lokal berria bazkideak biltzeko lekua izatea nahi dute. Asteleheneetik ostegunera izango dira bertan, iluntzeko zortzietatik gauetara hamarrak bitartean.



*Ramon Agirrereren argazkiak izan dira ikusgai*

**AIURRI**

47. zenbakia 1996ko azaroaren 29a.

**BILLABONA ETA  
ZIZURKILGO XIII.  
MENDI ASTEA  
Azaroaren 25etik  
abenduarien  
lehenera**

*Billabonako Aizkardi mendi elkarteak eta Zizurkilgo Sor-tzaile elkarteak kulturak antolatuta, ikus-entzunezko bost hitzaldi eta bi mendi irteera egiten ari dira aste honetan. Gaur iluntzean Asteasuko mendizaleek "Erriotik Alpetaraino" izenburuko hitzaldia eskainiko digute Zizurkilgo Kultur Etxean. Larunbaterako berriz, haurrentzako irteera antolatu dute Buruntzara. Asteari amaiera emateko Erniora igoko dira mendizaleak, eta noski, bazkaria egingo dute ondoren.*

**E**gin dituzten hitzaldietatik Josu Bereziartuak eskainirikoa izan da arrakastatsuenak. "Shisha Pangma 96" izenburupeko hitzaldian berak eta Inurategi anaiek aurten egin duten mendi igoeraren berri eman zuen jende zuzenaren zegoen Gurea zinema aretoan. Bestalde, aipatzekoa da gaurko hitzaldian eta asteartean Manex Azurmendi amasarrak eskaini zuenean, herritarrek egin dituzten ibilaldi eta mendi igoerak azaldu dituztela.

**Datorren urteari begira**

Gaztetxoaren talde bat antolatu nahi du Aizkardik datorren urterako. Mendiko zaletasuna pizteko, eta gehienbat, mendira joateko behar dituzten gaurkoak eta antzekoak nola erabili ezagutarazteko antolatu nahi dute talde hori. Horrezaz gain, autobusean joateko bidai gehiago antolatuko dituzte aurrerantzean, azkenekoek edukitzen duten arrakastaren ondorioz. Bukatzean mendian federatu nahi dutenek urtearen hasieran izango dute hori egiteko aukera.

# LEITZARAN BOLEIBOL TALDEA

**Urtebeteko bizitza duen kirol taldearen emaitzak onak izan dira orain artean**

Jubenil mailako neskatoekin elkartu gara beren taldeaz nahiz boleibolaz hitz egiteko, eta bide batez, nola entrenatzen duten ikusteko. Ordu terdiko hiru entrenamenduak egiten dituzte astero, eta Luis Mari Arrizabalaga dute entrenatzaile azken lau urteotan. Jubenil mailako ekipoa osatzen duten hamabi neskatoek ere, lau urte inguru daramate batera entrenatzen. Iazko denboraldia nahikoa eskasa izan zutela eta kezu dira. "Torneo de primavera delakoa irabazi genuen, baina torneo hori Gipuzkoako txapelketarako sailkatu ez direnek jokatzeko dute", esan digute jokalariek. Aurten, ordea, bestelakoak dira gauzak; hiru partiduetatik bi irabazi dituzte. Galdu duten partidua, gainera. Donostiako Fortuna taldearen aurkakoa izan da: "Hernaniko taldearekin batera, Gipuzkoa mailako talderik onena da". Abendura arte Gipuzkoa mailako boleibol taldeen arteko partidua jokatu dituzte, eta talde horietatik guztietatik bi igaroko dira Euskal Ligako partidua jokatzera.

## Taldeko teknika hobetu beharra

"Banakako teknika oso ona dute, baina hori taldean erabiltzea asko kostatzen zaie", esan digu Arrizabalaga entrenatzaileak taldeak oraindik ikasteko duenez galdetzean. Baloia sakatzerakoan, ordea, ongi moldatzen direla esan digute. "urdu jartzen ez badira, behinik behin".

Hamasei urte inguruko neskato hauek boleibolean jokatzeko jarraitzeko asmoa dute aurrerantzean. Taldeak berak erabakiko du zein torneotan parte hartuko duen, eta ondorioz, nolako entrenamenduak egin nahi dituen: "Aurten Euskal Ligan parte hartzea erabaki dute, eta beraz, entrenamenduak gogorragoak dira", esan digu entrenatzaileak.

Bestalde, Leitzaran boleibol taldearen maila altua dela baieztatzen du taldeko hiru jokalarik Euskadi nahiz Gipuzkoako taldean jokatzeko edota entrenatzeko deitu izanak.

*Leitzaran boleibol taldeko neskek gogor entrenatzen dute. Emakumezkoen hiru talde ezberdin dira, eta Manex Ametztegi Gipuzkoako Unibertsitate mailako boleibol txapeldunak entrenatzen ditu gaztetxoek; Luis Mari Arrizabalagak berri, jubenilak eta 2. mailako kadeteak entrenatzen ditu. Ikasteko asko duten arren, maila ona erakutsi dute orain artean, eta argi utzi digute boleibolean gustura jokatzeko dutela. Orain, Leitzaran boleibol taldea finkatzeko lanetan ari dira, eta horretarako, eskoletan boleibola erakusten jardungo dute jokalariek boleibol taldeak jarraipena izan dezan.*



Jubenil mailako taldea

**GOROSTI**  
HERBORISTERIA

- ✓ DIETISTA
- ✓ BARATZAKO
- FRUITU NATURALAK
- ✓ INTSENTSUA
- ✓ KANDELAK

Txermin kalea 13, behea  
☎ 69 20 56  
Billabona

**LERTXUNDI**  
HARATEGIA

Alkorta-enea etxea ☎ 69 18 76  
ZIZURKIL

**ZUBI**  
AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

Zizurkil

## GARAI BATEKO HILETA. 1953.




1953. urteko martxoaren 17ko argazki hau **Pilar Sasianbarrena** zenak atera zuen. Urte hasieran hil zen Pilar, eta beraz, alde batetik bestera ibili gara argazki honi buruzko informazio bila. Udaletxera jo dugu hiletako hilotza nor izango ote zen argitze-ko, eta martxoak 16an Joakin Antonio Sarasola Ermina hil zela ageri da udal agirietan. Hala ere, ezin izan dugu ziurtatu hileta bere oroimenez izan ote zen. Argazkiko zenbait herritarren izen-abizenak **Balbino Guridik** eta **Pako Isastik** argitu dizkigute. Hona hemen argazkiko lagun batzuren izen-abizenak: erdian, guri begira ageri den gizonezkoa **Juan Migel Sasianbarrena** da. Le-

henengo taldearen amaieran beltzez jantzi-tako gizona berriz, **Manolo Zubinas** da. Argazkian azkena ageri den herritarra berriz, **Gaspar Dorronsoro** da.

Pako Isastik esan digunez, 1953. urtean Zizurkil goiki elizan egiten ziren elizkizunak, beheko eliza 1958. urtean egin baitzuten. Ondorioz, hilotza ehorzteko eta hileta-elizkizunak egiteko, hilotzaren kaxa bizkarrarean hartuta eramaten zuten Zizurkil goiko elizaraino. Elizari orduan eta diru gehiago ordaindu, orduan eta elizkizun politagoak egiten zirela azaldu digu Pakok. Bestalde, emakumezkoek elizan gizonezkoen atzean eseri behar zutela gaineratu digu.

  
**ILLUMBE, S.L.**  
Auzoan...


  
**LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK**  
Pablo Gorosabel, 48  
☎ 65 54 76 **TOLOSA**  
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa  
☎ 59 24 11 **ANDOAIN**

**Munihost**

**LIBURUDENDA  
PAPERDENDA**

Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57 -  
**ANDOAIN**

## Jabier Tapia asteasuarra; Gipuzkoako soinujole txapelduna



- Zure familiako zeintzuk jotzen dute soinua?

- Nire aita zena umetatik hasi zen soinua jotzen, eta nire osaba Juanitori erakutsi zion berak. Nire anaia ere hasi zen soinua jotzen, eta garai berean, Joseba Tapia lehengusua hasi zen. Azkenik, ni bamaika urterekin hasi nintzen gauza bera egiten.

- Akordeoia; ofizioa ala afizioa?

- Nik beste lanbide bat dut, eta beraz, akordeoia afizio gisa hartzen dut. Nire anaiak klaseak ematen ditu, baina nik gustokoa dudalako jotzen dut soinua. Dedikazio asko behar duen gustoko hobby-a da niretzat.

- Soinu handia ala txikia jotzen duzu? Zergatik?

- Biak oso ezberdinak dira. Aitarengandik ikasi nuen soinu handia jotzen, eta gustatu egin zitzaizdanez soinu handia jotzen jarraitu nuen. Hasieran ikasteko nabikoa geldoa da, eta beharbada, jendea nazkatu egiten da. Dedikazioa baino ez du eskatzen, ordea.

- Zein txapelketa edota ekitalditan hartzen duzu parte?

- Txapelketa asko izaten dira urtean zehar eta nik zeinetan parte hartu eta zeinetan ez erabakitzen dut. Ordizian egin zen Gipuzkoako txapelketa-  
ra aurkeztu eta irabazi egin genuen. Hiruko bat aurkeztu ginen lehiaketara; Garbiñe Latiendak gitarra, Iker Muguruzak bateria eta nik soinua jo genuelarik. "Lurra" abestiarekin irabazi genuen. Datozen urteetan lehiaketa horrek aurrera jarraituko duela eta, bertan aurkezteko asmoa dugu aurrerantzean.

- Zuk bakarrik edo taldean jotzen duzu?

- Taldean jotzen dugu orain. Ordiziako lehiaketan garaile irten ginenetik jotzeko deitzen digute, eta beraz, alde batetik bestera gabiltza orain. Taldeak oraindik ez du izenik.


- Zein garaipen lortu dituzu?

- Duela urte batzuk Espainia mailako txapelketa-  
ra aurkeztu nintzen eta irabazi egin nuen. Bestea berriz, Ordiziako lehiaketan irabazi berri duguna. Bi lehiaketetara aurkeztu eta bietan garaile! Ea birugarren bat ere baden!

- Zein da zuretzat soinujolerik onena edota gustokoena?

- Soinu handian gustokoenak Bikondoa eta Yaben musikalariak ditut.


## PERTSONAIA EZKUTUA



**H**ilabete honetako pertsonaia ezkutua, denek asmatu duzuen bezala, Joxe Felipe Auzmendi da. ETB-ko *Jaiak 96* eta *Hirutan Hiru* saioen aurkezlea aski ezaguna da gaztetxo eta helduen artean.

Pertsonaia ezkutua asmatu eta lehiaketa irabazi duena billabonatarra da oraingo honetan ere: **Lina Mendizabal**, hain zuzen. Lehiaketan parte hartu arren, irabazlea suertatu zenik ezin zuen sinistu horren berri emateko deitu genio-  
nean.

Andoaingo **Video Box bideo-klubak** eskainitako "*Liberad a Willy 2 y su amuleto*" pelikula jasoko du oparizat Linak. Saria jasotzera ezin izan zuenez etorri, bere semea Josu Usandizagak jaso zuen saria. Hemendik aurrera, neguko eguraldi hotzak hastean, etxean goxo-goxo pelikula ikusteko aukera izango dute Linak eta bere bilobek. Beraz, lerro hauen bitartez zorionak Linari, eta beste guztioi berriz, eskerrik asko erantzuteagatik eta zorte on hurrengo lehiaketetan!







HERRITARREK  
ETA UDALAK  
ELKARRI EUSKARAZ  
EGITEKO  
KANPAINA.

*Egun gutxi barru  
izango duzu  
kanpaina honen  
berri zehatza.  
Bisita egingo  
dizugu  
zeure etxean,  
den-dena  
esplikatzeko eta  
zure erantzuna  
jasotzeko.*

APUNTA ZAITEZ!  
ZURE INDARRA ERE  
BEHAR DUGU!

*Euskara  
indarrean  
jarriko  
dugu...*

*zuk indar  
egiten  
badiguzu!*



ANDOAINGO UDALA  
Euskararen Normalkuntzarako Lansaila